

Enpresa eta erakunde onuradunak

■ Zentro laguntzaileak

Hauek izan ahalko dira onuradunak:

- 2015eko urtarrilaren 23ko **Ebazpenaren** arabera (2015eko otsailaren 2an argitaratu zen), bitartekotza-zerbitzua ematerakoan jarduera hauek gauzatzeko baimena dutenak, enplegu-eskaintzak erregistratu eta kudeatzeari dagokionez esklusiboki.
- Hurrengo erakunde hauek izendatu ahalko dira zentro laguntzaile, deialdi honi berariaz lotutako lan-eskaintzak biltzeko eta erregistratzeko, baldin eta egoitza EAEn badaude:



- ▶ Unibertsitateak.
- ▶ Lanbide heziketako ikastetxe publikoak eta itunpeko pribatuak.
- ▶ Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zentro eta erakunde laguntzaileak, 2015eko deialdiari dagozkion lanerako prestakuntza eta orientazioa emateko diru-laguntzen onuradun badira.
- ▶ Udalak, mankomunitateak, kuadrillak, tokiko garapenerako agentziak eta Behargintzako zentroak.

** * Erakunde bakoitzeko gehienez 3 lagun izendatuko dira funtzio horiek egiteko.*

** Ezinbestekoa izango da Lanbidek emandako prestakuntza saioetara joatea eta bertan ikasitakoa baliatzea. 2014-15ko deialdian baimena jaso zuten zentro laguntzaileentzat izan ezik, baldin eta eskaintzak biltzeko eta erregistratzeko jarduerak egiteko baimena jaso zuten pertsona berberak badituzte.*

Diruz lagun daitezkeen ekintzak


Enplegu-eskaintzak biltzea, erregistratzea eta kudeatzea, azkenean deialdi honen babesean diruz lagun daitezkeen kontratuak formalizatzen badira.

Epeak

1. Eskaintzak biltzeko eta erregistratzeko zentro laguntzailea izateko eskatzeko: Hilabetea, deialdi hau EHAA-n argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.
2. Enplegu-eskaintza bildu, erregistratu eta kudeatzeko, 2016ko azaroaren 30a arte (diruz lagundutako kontratua formalizatzeko azken eguna).
3. Dagokion diru-laguntza eskaera: 2017ko urtarrilaren 2tik 27a arte.

Diru-laguntzaren zenbatekoa

Eskaintza biltzea eta erregistratzea	120 euro
Eskaintza kudeatzea	80 euro



► Zenbateko horiek % 10 gehituko dira arrakastaz kudeatzen diren —diruz lagundutako kontratu baten formalizazioarekin amaitzen diren— 20 eskaintza bakoitzeko.

Diru-laguntzak ordaintzea

Ordainketa bakarra, laguntza emateko ebazpena eman ondoren.